



2002/11/28ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko urria

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK %0,1 JAITSI ZIREN 2002KO URRIAN

Datu horiekin, urte arteko hazkunde-tasa (2002ko urria, 2001eko urriarekin alderatuta) %2,3koa da.

2002ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorraren balioak %0,1 jaitsi dira, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko urria, 2001eko urriaren aldean) begiratuz gero, % 2,3koa izan da kostuen igoera; eta aurreko abenduaren aldean, berriz, % 2,7 igo da tasa lehenengo bederatzi hilabeteetan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia urriko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urrian, lehengaien kostuak % 0,1 jaitsi ziren, eta lan-indarraren kostuak, oster, bere horretan iraun du. Hala ere, urte arteko aldian, lan-indarraren kostua % 4,0 igo da; eta lehengaien kostua, berriz, % 1,2.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek bilakaera berdina izan dute urrian eta bietan %0,1eko jaitsiera izan da. Aldeak nabariagoak dira urte arteko bilakaera aztertuz gero: 2001eko urriaren aldean, % 0,9ko hazkunde-tasa du *eraikinak* azpisektoreak, eta % 2,0koa *obra zibila* azpisektoreak.

Sektoreak gehien kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko urrian, hauek izan dituzte prezio-igoerarik handienak: *karea*, *igeltsua eta eskaiola* (%3,1), *beira* (%2,8) eta *metalezko hoditeria* (% 1,7) arloek, besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenenak kontsumitutako honako produktuen artean ageri dira: *zementu artifiziala* (% 6,8), *petroliotik eratorriak* (%5,9), *makineria erabilirako osagarriak* (% 4,8) eta *metalezko hoditeria* (% 4,6) arloetan, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO URRIA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,2	-0,1	2,3	2,7
ERAIKINAK	119,4	-0,1	2,1	2,5
OBRA ZIBILA	118,4	0,0	2,8	3,5
LEHENGAIEN KOSTUA	113,5	-0,1	1,2	1,9
ERAIKINAK	113,9	-0,1	0,9	1,5
OBRA ZIBILA	112,4	-0,1	2,0	3,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxe: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.: 945-01 75 05. Faxe: 945-01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---